



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

UDALBATZAK 2019KO UZTAILAREN 9AN EGINIKO EZ-OHIKO OSOKO BILKURA

BERTARATUAK:

Igor Zapirain Lizarribar EH BILDU
Nagore Zubillaga Garmendia EH BILDU
Luis Lasa Muñagorri EH BILDU
Agurtzane Arribillaga Uranga EH BILDU
Aitor Jimenez Iparragirre EH BILDU
Cristina Martinez Arnaiz EH BILDU
Maria Iciar Jauregui Huarte EAJ-PNV
Juan Luis Cid Conde EAJ-PNV
Rodrigo Vilar Caballero Arellano EAJ-PNV
Juan Maria Caballero Arellano EAJ-PNV

IDAZKARIA :

Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave

Ibarran, **bi mila eta hemeretziko uztailaren bederatzian** arratsaldeko zazpiak zirenean udalbatzak ez-ohiko bilera egin zuen udaletxeko bilera-aretoan eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko osoko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden. Egintzaren buru, Igor Zapiraion Lizarribar alkate jauna izan zen, eta idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave

Lehendakariak egintza ireki dela adierazi ondoren, eguneko gai-zerrendako gaiak aztertzeari ekin zaio:

- 1.- Kale garbiketa zerbitzuaren esleipena**
- 2.- Udalbatzaren bilkuren aniztasuna ezartzea**
- 3.- Batzorde Informatibo iraunkorrak eratzea eta osatzea**
- 4.- Kide anitzeko organoetako ordezkariak izendatzea**
- 5.- Gobernu Batzordea eratzea**
- 6.- Zinegotzien eta talde politikoen ordainsarien erregimena**
- 7.- Kontratazio mahai iraunkorraren eraketa**
- 8.- Negoziazio Mahaiaren eraketa**
- 9.- Kirolegei eta Kulturako kurtsoei dagokien ordentza fiskalaren aldaketa**

2019/07/09



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

LEHENA:

1.- KALE GARBIKETA ZERBITZUAREN ESLEIPENA

2019ko apirilaren 29an buruturiko urgentziazko Udalbatza bidez, Ibarra kale garbiketa zerbitzuaren kontratazioa egiteko plegu administratibo eta teknikoak onartu ziren.

Pleguak Europar Boletinean eta Ibarra Web orrialdean argitaratu ziren, legeak esandako modu eta epean.

Ikusirik soilik enpresa bat aurkeztu dela kontratazio prozedura honetan: TRAECO MEDIOAMBIENTAL S.L alegia.

Ikusirik kontratazio mahaiak, prozedurari jarraiki gutunak zabaldu dituela eta balorazioak egin direla. Kontutan hartuta 2019ko ekainaren 25ean buruturiko kontratazio mahaiak, TRAECO MEDIOAMBIENTAL S.L enpresari esleitzea proposatzen duela Ibarra kale garbiketa zerbitzua.

Udalbatzak, 10 aldeko botorekin, (BILDU eta EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA: Esleitzea TRAECO MEDIOAMBIENTAL S.L enpresari, Ibarra kale garbiketa zerbitzua

BIGARRENGOA.- Ibarra kale garbiketa zerbitzua 200.727,27 eurotan emango da (BEZa kanpo).

HIRUGARRENGOA.- Erabaki hau kontratazio profilean argitaratu eta interesatuari jakinarazi

2019/07/09



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

BIGARRENA

2.- UDALBATZA BILKUREN ANIZKOTASUNA EZARTZEA

7/1985 Legeak, Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 46. artikuluan xedatutakoa hartu da kontuan, bai eta Toki-korporazioen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide-juridikoari buruzko arautegiak 77. eta 78. artikuluetan xedatutakoa ere, zeinetan Udalbatzarrak ohiko bilkura gutxienez hiru hilabetean behin egin behar duela ezartzen den eta udalbatzarrari dagokiola bilkura horien aldizkakotasuna ezartzea esaten den.

Alkateak, udalbatzarra osatzen duten kideei Udalbatzarraren ohiko bilkurak 2 hilabetetik behin egitea proposatu die, 2.hilabetetik behin egitea, hile bakoitietan bigarren asteko ostegunean arratsaldeko 19:00 etan eta ez-ohiko bilkurak aldiz; gaiak hala eskatzen duenean, Udalbatzarra osatzen duten legezko kideen laurdenak hala eskatzen duenean edo udalburuak hala erabakitzen duenean egingo direla oroitarazi du.

Udalbatzak, 6 aldeko botorekin, (BILDU) eta eta 4 abstentziorekin (EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Ibarra Udaleko Udalbatzarren ohiko bilkurak 2 hilabetetik behin egitea, hile bakoitietan bigarren asteko ostegunean arratsaldeko 19:00 etan eta ezohizko bilkurak gaiak aldiz;

2019/07/09



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

hala eskatzen duenean, Udalbatzarra osatzen duten legezko kideen laurdenak hala eskatzen duenean edo udalburuak hala erabakitzen duenean egingo dira.

HIRUGARRENA

3.- BATZORDE INFORMATIBO IRAUNKORRAK ERATZEA ETA OSATZEA

Toki-korporazioen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Arautegiak 123., 124., 125. eta 126. artikuluetan xedatutakoa hartu da kontuan. Alkate-jauinak Batzorde Informatibo Iraunkor hauek eratzea eta osatzea proposatu du:

1.- HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZUAK, INGURUMENA, MERKATARITZA ETA NEKAZARITZA BATZORDEA

- Lehendakaria: IGOR ZAPIRAIN
- Kideak: Ibarra Udako zinegotzi denak
- Bi hilabetetan behin. Lehen asteko ASTELEHENEAN eguadi 13:15

2.- OGASUNA ETA PERTSONALA (KONTUETAKO BATZORDE BEREZIA ART 127)

- Lehendakaria: IGOR ZAPIRAIN
- Kideak: Ibarra Udako zinegotzi denak
- Bi hilabetetan behin. Lehen asteko ASTELEHENEAN eguadi 14:00

3.- GIZARTE ZERBITZUAK, ANIZTASUNA, POLITIKA FEMINISTAK ETA 3. ADINA

- Lehendakaria: NAGORE ZUBILLAGA
- Kideak: Ibarra Udako zinegotzi denak
- Bi hilabetetan behin. Lehen asteko OSTIRALEAN goizeko 8:30

4.- KULTURA, GAZTERIA, HEZKUNTZA, EUSKERA ETA KIROLA

2019/07/09



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

- Lehendakaria: NAGORE ZUBILLAGA
- Kideak: Ibarra Udaleko zinegotzi denak
- Bi hilabetetan behin. Lehen asteko ASTEAZKENA goizeko 10:00

Udalbatzak, 6 aldeko botorekin, (BILDU) eta 4 abstentziorekin (EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA: Ibarra Udalbatzak honako Batzorde Informatibo Iraunkorrak eratzen ditu:

1.- HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZUAK, INGURUMENA, MERKATARITZA ETA NEKAZARITZA BATZORDEA

- Lehendakaria: IGOR ZAPIRAIN
- Kideak: Ibarra Udaleko zinegotzi denak
- Bi hilabetetan behin. Lehen asteko ASTELEHENEAN eguadi 13:15

2.- OGASUNA ETA PERTSONALA (KONTUETAKO BATZORDE BEREZIA ART 127)

- Lehendakaria: IGOR ZAPIRAIN
- Kideak: Ibarra Udaleko zinegotzi denak
- Bi hilabetetan behin. Lehen asteko ASTELEHENEAN eguadi 14:00

3.- GIZARTE ZERBITZUAK, ANIZTASUNA, POLITIKA FEMINISTAK ETA 3. ADINA

- Lehendakaria: NAGORE ZUBILLAGA
- Kideak: Ibarra Udaleko zinegotzi denak
- Bi hilabetetan behin. Lehen asteko OSTIRALEAN goizeko 8:30

4.- KULTURA, GAZTERIA, HEZKUNTZA, EUSKERA ETA KIROLA

- Lehendakaria: NAGORE ZUBILLAGA
- Kideak: Ibarra Udaleko zinegotzi denak
- Bi hilabetetan behin. Lehen asteko ASTEAZKENA goizeko 10:00

2019/07/09



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

BIGARRENGOA: Batzordea ospatzen den egunean; lehenengo deialdian kuoruma izateko, 6 zinegotzi egon beharko dira. Kuoruma lortzen ez bada, batzordeak 2. deialdia 15 minutu pasa ondoren egingo du eta 3 zinegotzi badaude, batzordea ospatuko da kuoruma lortuz.

LAUGARRENA

4.- KIDE ANITZEKO ORGANOETAKO ORDEZKARIAK IZENDATZEA

Alkateak, kidea anitzeko organoen ordezkariak izendatzeko proposamen hau egiten dio Udalbatzari, honek onar dezan:

1.- TOLOSALDEA GARATZEN

- Igor Zapiarain. Ordezkoa Nagore Zubillaga.

2.- TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA

- Igor Zapiarain. Ordezkoa Nagore Zubillaga.

3.- LOATZO MUSIKA ESKOLA

- Kris Martínez. Ordezkoa Nagore Zubillaga.

4.- HILTEGIKO MANKOMUNITATEA

- Aitor Jimenez. Ordezkoa Luis Lasa.

5.- TOLOMENDI

- Aitor Jimenez. Ordezkoa Luis Lasa.

6.- EUSKAL FONDOA

- Nagore Zubillaga. Ordezkoa Agurtzane Arribillaga.

7.- UR KONTSORTZIOA

- Igor Zapiarain. Ordezkoa Aitor Jimenez.

2019/07/09



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

8.- APATTA INDUSTRIALDEA KONTSERBATZEKO HIRIGINTZA INTERESEKO TALDEA

- Igor Zapiain. Ordezkoa Nagore Zubillaga.

9.- TOLOSALDEKO APATTA ERREKA INDUSTRIA LURRA S.L

- Igor Zapiain. Ordezkoa Nagore Zubillaga.

10.- APATTA ERREKA INDUSTRIAGUNEA S.L

- Igor Zapiain. Ordezkoa Nagore Zubillaga.

11.- UDALBILTZA

- Igor Zapiain. Ordezkoa Nagore Zubillaga.

Udalbatzak, 6 aldeko botorekin, (EH BILDU) eta 4 abstentzio botorekin (EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENGOA: Ibarra Udalbatzak kidea anitzeko organoen ordezkariek honako zinegotzi hauek izendatzen ditu:

1.- TOLOSALDEA GARATZEN

- Igor Zapiain. Ordezkoa Nagore Zubillaga.

2.- TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA

- Igor Zapiain. Ordezkoa Nagore Zubillaga.

3.- LOATZO MUSIKA ESKOLA

- Kris Martínez. Ordezkoa Nagore Zubillaga.

4.- HILTEGIKO MANKOMUNITATEA

- Aitor Jimenez. Ordezkoa Luis Lasa.

5.- TOLOMENDI

- Aitor Jimenez. Ordezkoa Luis Lasa.

6.- EUSKAL FONDOA

2019/07/09



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

- Nagore Zubillaga. Ordezkoa Agurtzane Arribillaga.

7.- UR KONTSORTZIOA

- Igor Zampirain. Ordezkoa Aitor Jimenez.

8.- APATTA INDUSTRIALDEA KONTSERBATZEKO HIRIGINTZA INTERESEKO TALDEA

- Igor Zampirain. Ordezkoa Nagore Zubillaga.

9.- TOLOSALDEKO APATTA ERREKA INDUSTRIA LURRA S.L

- Igor Zampirain. Ordezkoa Nagore Zubillaga.

10.- APATTA ERREKA INDUSTRIAGUNEA S.L

- Igor Zampirain. Ordezkoa Nagore Zubillaga.

11.- UDALBILTZA

- Igor Zampirain. Ordezkoa Nagore Zubillaga.

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri eman kide anitzeko organo guztiei

BOSGARRENA

5.- GOBERNU BATZORDEA ERATZEA

Ikusirik Toki-araubidearen Oinarriak arautzen (apirilaren 2ko 7/1985 Legeak) dituen Legeak 20, 21.2 eta 23 artikuluetan xedatzen duena.

Ikusirik, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeetako Antolamendu, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko araudia onesten duenak bere 41.3, 46 eta 52 artikuluetan xedatzen duena.

2019/07/09



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Alkateak proposatzen du Tokiko Gobernu Batzordea eratzea, nahiz eta Ibarrek ez dituen 5.000 biztanle eta ez duen onartua Arautegi Organikori, beharrezko ikusten du batzordearen eraketa.

Udalbatzak, 6 aldeko botorekin, (EH BILDU) eta 4 abstentzioekin (EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENGOA: Tokiko Gobernu Batzarra eratzea Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak 20. artikuluan eta Antolamendu eta Funtzionamendu Araudiak 35. artikuluan xedatutakoa aintzat hartuz.

BIGARRENGOA: Tokiko Gobernu Batzordea batzartuko da hilabetean behin, 3. asteko ostiralean goizeko 9:30etan

Alkateak Tokiko Gobernu Batzarra eraturik, jakinarazten du 2019/297 Alkate Dekretu bidez Tokiko Gobernu Batzordeko kideak zehazten dira eta 2019/298 Alkate Dekretu bidez Alkateak Tokiko Gobernu Batzordeari esleitzen dizkion eskuduntzak zehazten dira.

2019/ 297 ALKATE DEKRETUA

Ikusirik Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak 20. artikuluan eta Antolamendu eta Funtzionamendu Araudiak (7/1985 Legearen)35. artikuluan xedatutakoa hartu da kontuan; horrela bada Gobernu batzordea beharrezko organoa da 5.000 biztanletik gorako herrietan eta Arautegi Organikoak hala ezartzen duenean edo udalbatzarrak hori erabakitzen duenean.

Alkateak proposatzen du berau eratzea beharrezko jotzen duela nahiz eta Ibarrek ez dituen 5.000 biztanle eta ez duen onartu Arautegi Organikorik. Udal eskumenen barne nahiz kanpo funtzionamendurako eraginkorrako ikusten du eratzea. Gobernu Batzordeak izaera irekia izango du parte hartu nahi duten zinegotzi guztientzat nahiz eta bertako kide ez izan.

2019/07/09



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Kontuan harturik aipatutako lege xedapenaren arabera, Tokiko Gobernu Batzarra, Alkatea eta zinegotziez osatuko dela, eta azken hauek ezin dutela osoko bilkurako herena baino gehiago izan; hiru kide izendatzen dira.

Kontutan harturik 7/1985 Legearen 23. artikulua eta 2568/1986 Errege Dekretuaren 46 artikulua arabera, alkatearen eskumena dela Tokiko Gobernu Batzarraren kideak izendatzea, gero Osoko bilkurari horren berri emanez.

Kontutan harturik 7/1985 Legearen 21. artikulua eta 2568/1986 Errege Dekretuaren 41.3 artikulua arabera, Alkateak bere eskumenak delegatu ditzakeela, besteak beste Tokiko Gobernu Batzordean.

Aipatu guztiagatik .

Alkateak honek apirilaren 2ko 7/85 Legeak, Tokiko Erregimeneko Oinarri Arautzaileak, 21.1. artikuluan, Tokiko Erregimenaren gain indarrean dauden Lege Xedapenen Testu Bateratua onesten duenak, 24. artikuluan eta Tokiko Erakundeen Antolamenduaren, Funtzionamenduaren eta Erregimen Juridikoaren Arautegia onesten duenak, 41. artikuluan ematen dizkidan ahalmenak erabiliz, honakoa

EBAZTEN DU:

LEHENENGOA.- Tokiko Gobernu Batzorde kide hauek izendatzea:

	TITULARRAK	ORDEZKOA	
LEHENDAKARIA	IGOR ZAPIRAIN		
KIDE 1	NAGORE ZUBILLAGA		
KIDEA 2	LUIS LASA	AITOR JIMENEZ	
KIDEA 3	AGURTZANE ARRIBILLAGA	CRISTINA MARTINEZ	

BIGARRENGOA.- Dekretu honen berri interesatuei ematea.

HIRUGARRENGOA.- Udalbatzak burutzen duen hurrengo ohiko bilkuran dekretu honen berri ematea.

Ibarra, 2019ko uztailaren 9an

2019/ 298 ALKATE DEKRETUA

Tokiko Gobernu Batzordea eraturik, eta 2019/2097 Alkate Dekretu bidez kideak zehazturik eta
2019/07/09



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

kontutan harturik 7/1985 Legearen 21. artikulua eta 2568/1986 Errege Dekretuaren 41.3 artikulua arabera, Alkateak bere eskumenak delegatu ditzakeela, besteak beste Tokiko Gobernu Batzordean.

Alkatetza honek apirilaren 2ko 7/85 Legeak, Tokiko Erregimeneko Oinarri Arautzaileak, 21.1. artikuluan, Tokiko Erregimenaren gaian indarrean dauden Lege Xedapenen Testu Bateratua onesten duenak, 24. artikuluan eta Tokiko Erakundeen Antolamenduaren, Funtzionamenduaren eta Erregimen Juridikoaren Arautegia onesten duenak, 41. artikuluan ematen dizkidan ahalmenak erabiliz, honakoa

EBAZTEN DU:

LEHENENGOA.- Tokiko Gobernu Batzordeari honako eskuduntza hauek eskuordetzea:

- 1.- 15.000 eurotik gorako zerbitzuak eta hornidurak kontratatzeko pleguen onarpena (kontratuaren esleipena aldiz Alkate Dekretu bidez burutuko da kontratazio-mahai iraunkorraren proposamena entzun ondoren).
- 2.- 40.000 eurotik gorako obrak kontratatzeko pleguen onarpena ((kontratuaren esleipena aldiz Alkate Dekretu bidez burutuko da kontratazio-mahai iraunkorraren proposamena entzun ondoren).
- 3.- Planeamendu orokorraren garapenerako planeamendu tresnak onartzea, ez badaude udalbatzari espresuki esleituak, bai eta hirigintza kudeaketarako tresnak, bere eskumenen arabera dagozkion hirigintza hitzarmenak barne, eta hirigintza egitasmoak, eta eraikin berrien kasuetan, obra handien baimena eta erabilera baimena ematea.
- 4.- Aurri-deklarazioak egitea, berehalako aurri-deklarazioa izan ezik.
- 5.- 15.000 eurotik gorako gastuaren xedatzea
- 6.- Ondare erantzukizun espedienteak ebaztea beti ere kopurua 15.000 euro eta 100.000 euro bitartekoa denean (15.000 eurotik beherako ondarezko erantzukizun espedienteak Alkateak ebatziko ditu eta 100.000 eurotik gorakoak aldiz Udalbatzak).
- 7.- Diru-laguntzak 15.000 eurotik gorakoak direnean Tokiko Gobernu Batzordeak onartuko ditu hauek emateko oinarriak (diru-laguntza eman eta zuriketaren onarpena aldiz Alkate Dekretu bidez ebatziko ditu Alkateak).
 - Diru-laguntzak nominatibo edo izendunak direnean, 15.000 eurotik gorakoak direnean, diru-laguntza emateko sinatu behar den hitzarmenaren onarpena Tokiko Gobernu Batzordeak egingo du.
- 8.- Udal ondasunen gaineko emakida, alokatze edo lagapena egitea erabakiko du, betiere eskubide horien iraupena bost urte baino gutxiago bada eta urteko aurrekontuaren baliabide arrunten %10 gainditzen ez badute.
- 9.- 15.000 eurotik gorako (beti ere 400.000 eurotara heltzen ez badira hau Udalbatzak erabakiko du) ondasunen eta eskubideen erosketa eta besterentzea:
 - a. ondasun higiezinak, aurrekontuan aurreikusita badago
 - b. ondasun higigarriak, balio historiko artistikoak izan ezik aurrekontuan besterentzea aurreikusita ez badago.
- 10.- Hirigintzako zehapen espedienteen ebazpenak, larri edo oso larriak direnean lurzoru legearen arabera (2/2006) eta 2/1998 legearen arabera
- 11.- Udal ordenantzekiko arau haustek zigortzea 600 eurotik aurrera, non eta ahalmen hori beste organo batzuei egotzirik ez den.

BIGARRENGOA.- Dekretu honen berri interesatuei ematea.

HIRUGARRENGOA.- Udalbatzak burutzen duen hurrengo ohiko bilkuran dekretu honen berri ematea.

Ibarra, 2019ko uztailaren 9an

2019/07/09



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

SEIGARRENA

6.- ZINEGOTZIEN ETA TALDE POLITIKOEN ORDAINSARIEN ERREGIMENA

Alkateak honako ordainsarien erregimenaren proposamena egiten dio Udalbatzari, honek onar ditzan:

TALDE POLITIKOAK HILERO: 100 EURO

TALDEKO KIDE BAKOITZARI HILERO: 200 EURO

BATZORDEETARA ASISTENTZIA: 150 EURO ZINEGOTZI BAKOITZARI

UDALBATZARA ASISTENTZIA: 100 EURO ZINEGOTZI BAKOITZARI

GOBERNU BATZORDERA ASISTENTZIA: 200 EURO ZINEGOTZI BAKOITZARI

Udalbatzak, aho-batez, 10 aldeko botorekin (EH BILDU eta EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA: Onartzea Ibarra Udaleko zinegotzi eta talde politikoek honako ordainsari erregimena:

Talde politikoak hilero: 100 euro

Talde politikoetako kide bakoitzari hilero: 200 euro

Batzordeetara asistentziagatik: 150 euro zinegotzi bakoitzari

Udalbatzara asistentziagatik: 100 euro zinegotzi bakoitzari

2019/07/09



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Gobernu Batzodera asistentziagatik: 200 euro zinegotzi bakoitzari

BIGARRENA: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu erabakia.

ZAZPIGARRENA

7.- KONTRATAZIO MAHAI IRAUNKORRAREN ERAKETA

Alkateak, kontratazio mahai iraunkorra eratzeko proposamena egiten du. Sektore Publikoko kontratuei buruzko azaoaren 8ko 9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarriak xedatzen duen du kontratazio-mahai iraunkorraren konposizioa. Honen baitan honako proposamena egiten da.

Kidea	Titularra	Ordezkoa
Lehendakaria	Udaleko Alkate jauna	Lehenengo Alkateordea
Kideak	Udal Korporazioko Idazkaria Udal Korporazioko Kontu- Hartzailea	Diruzaina
Idazkaria	Giza Baliabideetako administraria	
Besteak	Kasu bakoitzean gaien arabera beharrezkoak diren funtzionario edo aholkulariei deituko zaie. Ahotsa izango dute baina ez dute botorik bere jardueran.	

Udalbatzak, 6 aldeko botorekin, (EH BILDU) eta 4 abstentzio botorekin (EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENGOA: Kontratazio-Mahai iraunkorra eratzea eta osatzea honako osaketa izango duelarik:

Kidea	Titularra	Ordezkoa
Lehendakaria	Udaleko Alkate jauna	Lehenengo Alkateordea
Kideak	Udal Korporazioko Idazkaria	

2019/07/09



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

	Udal Korporazioko Kontu-Hartzailea	Diruzaina
Idazkaria	Giza Baliabideetako administraria	
Besteak	Kasu bakoitzean gaien arabera beharrezkoak diren funtzionario edo aholkulariei deituko zaie. Ahotsa izango dute baina ez dute botorik bere jardueran.	

BIGARRENGOA: Kontratazio-Mahai Iraunkorraren osaketa kontratazioko profilean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

HIRUGARRENGOA: Erabaki honen berri ematea interesatuei, dagozkien errekurtsua jar dezaten.

ZORTZIGARRENA

8.- NEGOZIAZIO MAHAIAREN ERAKETA

Ikusita 7/2007 Legea, Enplegatu publikoaren oinarrizko estatutuarena, non 33,34,35, 36 eta 37 artikuluetan xedatzen duen negoziazio mahaiaren eraketa; Alkateak proposatzen du negoziazio mahaiaren eraketa.

Negoiazio mahaiaren egongo diren kideak honakoak proposatzen dira:

	TITULARRA	ORDEZKOA
ADMINISTRAZIOAREN ORDEZKARITZAN	ALKATEA IGOR ZAPIRAIN LIZARRIBAR	ALKATE ORDEA NAGORE ZUBILLAGA GARMENDIA
LANGILEEN ORDEZKARITZAN	LANGILEEN ORDEZKARIA ITZIAR AGIRREZABALA	
GONBIDATUAK	Aholkulariak egotea eska daiteke, baina ahotsa izan arren hauek ez dute boto eskubiderik izango erabaketan	

Udalbatzak, 6 aldeko botorekin, (EH BILDU) eta 4 abstentzio botorekin (EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENGOA: Negoiazio mahaiaren eratzea eta osatzea honako osaketa izango duen eraketa:

	TITULARRA	ORDEZKOA
ADMINISTRAZIOAREN ORDEZKARITZAN	ALKATEA IGOR ZAPIRAIN LIZARRIBAR	ALKATE ORDEA NAGORE ZUBILLAGA GARMENDIA
LANGILEEN ORDEZKARITZAN	LANGILEEN ORDEZKARIA	

2019/07/09



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

	ITZIAR AGIRREZABALA	
GONBIDATUAK	Aholkulariak egotea eska daiteke, baina ahotsa izan arren hauek ez dute boto eskubiderik izango erabaketan	

BIGARRENGOA: Negoziazio mahaiaren eskumenak honakoak izango dira:

Herri Administrazioetako bakoitzak dituen eskumenei lotuta, bakoitzak bere eremuan eta kasuan-kasuan legez dagokion irismena izanik, ondorengo zerrendan jasotako hauek izango dira negoziatzeko gaiak:

- a) Estatuko nahiz autonomia-erkidegoetako Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean ezarritakoaren arabera, Herri Administrazioen zerbitzuan diharduten langileen ordainsarrietan egin beharreko igoera aplikatzea.
- b) Funtzionarioen ordainsari osagarrien zenbatekoa ezartzea eta aplikatzea
- c) Irizpide orokorrak finkatzeko arauak, gai hauek direla-eta: enplegu publikora iritsi, karrera egin eta lanpostuak betetzeko moduak, lanpostuak sailkatzeko sistemak eta giza baliabideak antolatzeke planak eta planifikazio-tresnak
- d) Jarduna ebaluatzeke orduan, irizpide eta mekanismo orokorrak finkatzeko arauak
- e) Gizarte-aurreikuspen osagarriko planak.
- f) Barne-sustapeneko eta prestakuntzako planei eta funtsei buruzko irizpide orokorrak.
- g) Gizarte-prestazio eta klase pasiboen pentsioak zehazteke irizpide orokorrak.
- h) Eskubide sindikalei eta parte-hartzeari buruzko Proposamenak
- i) Gizarte-ekintzari buruzko irizpide orokorrak
- j) Laneko Arriskuen Prebentzioko arautegian halaxe ezarrita daudenak.
- k) Funtzionarioen lan-baldintzetan eta ordainsarrietan eragina dutenak, baldin eta horiek arautzeke legemilako arauak izatea beharrezkoa bada.
- l) Enplegu publikoaren eskaintzei buruzko irizpide orokorrak.
- m) Hauei dagozkienak: lan-egutegia, ordutegiak, lanaldiak, oporrak, baimenak, mugigarritasun funtzionala eta geografikoa, baita giza baliabideak estrategikoki planifikatzeko irizpide orokorrak ere, enplegatu publikoan lan-baldintzetan eragina duten alderdiei dagokienez.

Honako gai hauek ez dira izango nahitaez negoziazioan aztertu beharrekoak:

- a) Herri Administrazioen erabakiak, baldin eta beren antolamendu-ahalei eragiten badiete. Beren antolamendu-ahalei eragiten dieten Herri Administrazioen erabakien ondorioek funtzionario publikoek dagokienez aurreko paragrafoan adierazitako lan-baldintzetan eragina dutenean, orduan egoki izango da aipatutako baldintza horiek Estatutu honetan adierazitako erakunde sindikalekin negoziatzea.
- b) Zerbitzu publikoan erabiltzaileek eta herritarrek dituzten eskubideen erregulazioa bai eta administrazioeko egintzak eta xedapenak eratzeko prozedura ere.
- c) Zuzendaritzako langileen lan-baldintzak zehazteke erabakiak.
- d) Hierarkia-harremanari dagozkion zuzendaritza eta kontrol-ahalmenak.
- e) Enplegu publikora iristeko eta lanbide-sustapena egiteke sistemak, irizpideak, organoak eta prozedurak finkatzeko erregulazioa eta mugapen zehatza, kasuan-kasuan

BIGARRENGOA: Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

HIRUGARRENGOA: Erabaki honen berri ematea interesatuei, dagozkien errekurtsua jar dezaten.

2019/07/09



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

BEDERATZIGARRENA

9.- KIROLDEGI ETA KULTURAKO KURTSOEI DAGOKIEN ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETA

Ikusirik kurtso izaera duten ikastaroen ordenantza fiskala 2019-2020 urterako eguneratu beharrean gaudela kurtsoak burutu haurretik.

Kontuan harturik horretarako osoko bilkurako erabakia behar dela 7/85 legearean 22 artikulua jarraiki, eta zehazki hasierako onarpena burutu behar dela, ondoren GAOn argitaratu eta 30 eguneko jende aurreko epea ezarriaz dena delako alegazioak onatzeko.

Kontuan harturik udal honen biztanle kopururaren arabera ez dagoela behartua batzorde informatiborik izatera, eta beraz zuzenean gaia plenora bideratu daitekeela, beti ere udalak bere osoko bilkurako erabaki bidez batzorde informatiboen eraketa adosten ez badu.

Ikusirik kontu hatzailtzak burututako txostena 2019-2020 ikasturteko kiroldegi eta kultur arloko kurtsoen ordenantza fiskalen aldaketari buruzkoa.

Aztertu ondoren Kultur teknikariak burututako txostena arlo honetan.

Udalbatzak, aho-batez, 10 aldeko botorekin, (EH BILDU eta EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENA.- 2019/2020 ikasturterako kirol eta kultura ikastaroei dagozkien prezio publikoen aldaketaren hasierako onarpena burutzea, % 10eko igoera suposatuz.

3.1. KIROLDEGIKO KURTSOAK

<i>Kiroldegiko bazkideak Prezio publikoa</i>	<i>2019/2020</i>	<i>Socios Polideportivo Precios públicos</i>
2 ordu astean	224,51 €	2 horas semanales
1 ordu astean	112,24 €	1 hora semanal

2019/07/09



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Kiroldegiko ez bazkideak Prezio publikoa	2019/2020	No Socios Polideportivo Precios públicos
2 ordu astean	309,30 €	2 horas semanales
1 ordu astean	154,65 €	1 hora semanal

Adinekoen kurtsoei dagokienean honako hobariak aplikatuko dira

Aurreko ekitaldiko zerga aitoparenaren oinarri likidagarria / Base liquidable de la renta del ejercicio anterior	% hobaria / Bonificación
30.000,01-35.000	25 %
20.000,01-30.000	50 %
15.000,01-20.000	80 %
0-15.000	90 %

Prezio publikoak aplikatzeko arauak:

1. Izen emateak udal kiroldegiko bulegoetan egingo dira, bulego orduetan eta inprimakia beteta. Ordainketak helbideratu egingo dira.

2. Ikastaroak bederatzi (9) hilabetekoak dira. Urrian hasiko dira eta ekainean amaitu. Izena ematen dutenak behartuta daude bukatu arte jarraitzera, prezio publikoaren zortzapena bakarria izango delarik.

3. Ikastaroen ordainketa bi alditan egingo da:

— Lehen kobraketa: 2019ko azaroren 15ean.

— Bigarren kobraketa: 2020ko martxoaren 15ean.

Kopuru osoa interesatuak emandako Kontu korrontean kobratuko da.

UDAKO KURTSOAK

Udako ikastaroak - Bazkideak		Cursos de Verano - Socios	
Cycling	30 €	Cycling	
Cycling adingabeak(*)	30 €	Cycling menores (*)	
Kirol Txokoa (*)	30€	Kirol Txokoa (*)	
GAP + Tonifikazioa	30€	GAP + Tonificación	

2019/07/09



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Abdominal hipopresiboak	25 €	Abdominales hipopresivos
(*) 11 urte gorakoentzat		(*) Para niños y niñas mayores de 11 años

Udako ikastaroak - Ez bazkideak		Cursos de Verano - No socios	
Cycling	42 €	Cycling	
Cycling adingabeak(*)	42 €	Cycling menores (*)	
Kirol Txokoa (*)	42 €	Kirol Txokoa (*)	
GAP + Tonifikazioa	42 €	GAP + Tonificación	
Abdominal hipopresiboak	30 €	Hipopresivos	
(*) 11 urte gorakoentzat		(*) Para niños y niñas mayores de 11 años	

EGUNEKO KIROLDEGI ERABILERA

Eguneko kuotak		Cuotas Diarias	
16 urte edo gehiago	6,06 €	16 años o más	
16 urte baino gutxiago	2,75 €	Menores de 16 años	

3.2. KULTUR TAILERRAK

Tailer kulturalak prezio publikoak	2019 - 2020 ikasturtea	Talleres Culturales precios públicos
Laburak, astean 2 ordu	80,77 €	Cursos de corta duración, 2 horas semanales
Luzeak, astean egun bat bi ordu	106,35 €	Cursos de larga duración, (un día) Dos horas a la semana

2019/07/09



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Luzeak, bi egun, lau ordu astean.	212,10 €	Cursos de larga duración, (dos días) Cuatro horas a la semana
<i>Hobariak</i>		<i>Bonificaciones</i>
Gazte Txartela	10 %	Gazte Txartela
Familia ugaria	50 %	Familia Numerosa

Jubitaturik dauden pertsoneri aplikagarri izango zaizkien hobariak:

<i>Aurreko ekitaldiko zerga aitortpenaren oinarri likidagarria / Base liquidable de la renta del ejercicio anterior</i>	<i>% hobaria / Bonificación</i>
30.000,01-35.000	25 %
20.000,01-30.000	50 %
15.000,01-20.000	80 %
0-15.000	90 %

Prezio publikoak aplikatzeko arauak:

- 1. Izen-emateak kultur-etxean egingo dira, bulego orduetan eta inprimakia betez. Ordainketak helbideratu egingo dira.*
- 2. Ikastaro bat antolatu ahal izateko, gutxienez 8 pertsona beharko dira. Izena ematen dutenak behartuta daude bukatu arte jarraitzera, prezio publikoaren zortzapena bakarria izango delarik.*

- 3. Udalak ikastaroen kobraketa honela egingo du epe luzeko kurtsoetarako:*

— Lehen kobraketa: 2019ko azaroren 15ean.

— Bigarren kobraketa: 2020ko martxoaren 15ean.

Gainontzeko kurtsoak ordainketa bakarrean egingo dira.

Kopuru osoa interesatuak emandako Kontu korrontean kobratuko da.

BIGARRENA.- Onarpen hau GAOn argitaratzea, 30 eguneko epea ezarriaz dagozkion alegazioak jasotzeko. Halakorik izan ezean, behin betiko izaerarekin onartua geratuko da.

2019/07/09



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Kontuhartzaileak, Lierni Muñoa-k, hitza eskatzen du eta esan beharrekoa aktan jasotzea eskatzen du. Alkateak hitza eman ondoren honakoa adierazten du: Udalbatza ez da egoki prestatu, jada 20 egun kargua hartu dela eta udalbatzara eraman behar ziren gaiak egoki prestatuta egoteko denbora egon da. Ez da egokia, gaur bertan aldaketak egitea eta beste partidu politikoei udalbatzan adieraztea aldaketa horiek. Aurrez aldaketa horiek jakinarazi behar dira egoki, denen berme eta errespetu gisa. Beste alderdi politikoei bozkatuko diren gaiak egoki igortzea denontzako berme bat da baita herritarrentzat ere. Kontutan izan aurrez informazioa igortzearekin, herritarrei parte hartzeko eskubidea bermatzen dela. Beraz, nahiz eta ulertu hasierako udalbatzak direla horrek ez du esan nahi lana ez dela egoki egin behar. Bestalde udal langileok ere ostegunerako dena egoki prestatuta izan behar genuen (dokumentazioa behin betikoa) eta ez dugu lana ere egoki egin. Hau ez errepikatzea eskatzen da.

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, bilera amaitutzat ematen da goiburuan adierazitako egunaren arratsaldeko zazpiak eta hogeita hamaika direnean. Nik, idazkari naizen honek, akta hau egiten dut bertan jasotakoaren berri emateko.

2019/07/09

20